

# A.3.2. ARGATXAKO LORATEGIAK

A.3.2. ARGATXAKO LORATEGIAK

Azalera: 14.439 m2

I. Ordenazio-Irizpideak eta Helburuak

Area hau, Ipuruako merkatu zaharreko eraikinetik hasi eta Romualdo Galdós eta Santaines kaleetarainoko zona da.

Zona honetan ez da proposamen berririk eta lehendik dauden bizitegi eraikinak finkatzen dira.

II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren araberakoa.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordezterakoan, O-AL-AO-1 eta O-AL-AO-2C "Lerrokadurak eta Sestrak. Ordenantza Eremuak ", XII. planoetan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera ezaugarritzen duena Bizitegi edo egoitza erabilera da: Hirigintza Arauen agirian 8.3.07. Artikulua.- Egoitza erabilera (6. erabilera).

III. Ordenazio Xehatua

Eremu honetan xehatutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.